




# LANGABEZIA ERREGISTRATUA

## Langabeziaren igoera erritmoa moteldu dela egiaztatu da

Udako denboraldi turistikoaren amaiera hileko horretan gertatzen denez, abuztua, tradizioz, enplegurako oso hilabete positiboa ez den arren, langabeziak uztailarekin alderatuta izan zuen igoera azken urteetako abuztuan izandakoaren antzekoa izan zen. Zehazkiago adierazita, 3.090 langabe gehiago izan ziren Euskadin, eta urte arteko aldakuntza tasa %26,2 izan zen, aurreko hilekoa


baino sei hamarren txikiagoa. Zenbaki absolutuetan, 146.450 langabe zenbatu ziren abuztuan, hots, otsailean baino ia 30.000 gehiago, koronabirusak ekarritako krisia EAEko lan merkatuan eragina izaten hasi aurreko hilabetean. Hala eta guztiz ere, igoera handienak martxoan eta apirilean gertatu ziren, harez geroztik moteltze prozesu bati bide emanaz.

### LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA Urte arteko aldakuntza tasa




### LANGABEZIA ERREGISTRATUA. ABUZTUA %26,2

### LANGABEZIA ERREGISTRATUA. EMAKUMEAK Urte arteko aldakuntza tasa



### LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK Urte arteko aldakuntza tasa




## LANGABEZIA . GAZTEAK

Urte arteko aldakuntza tasa



## LANGABEZIA . ATZERRITARRAK

Urte arteko aldakuntza tasa



Langabeziaren hazkundearen erritmo leuntze hori orokorra izan zen sektore guztietan, salbuespenik gabe. Zehatz-mehatz adierazita, industriarekin hasita, sektore horrek izan zituen aldaketa erlatibo handienak (%29,4), baina egia da gehikuntza erritmoa gehien murriztu zuen sektorea ere izan zela, manufakturen industrian oinarrituta. Beste aldetik, zerbitzuek industrietatik oso urrun ez zeu-

den erregistroak jaso zituzten, eta horrek bezala, balio txikiagoak izan zituen, %27,4tik %25,8ra igaro baitzen, neurri handi batean, turisten jatorria diren herrialde nagusiek ezarri zituzten mugikor-tasuneko murrizketen ondorioz. Azkenik, eraikuntzaren sektorea izan zen hazkunde neurritsuenak erakutsi zituena, pandemiak sektore horretan ondorio txikiagoak utzi zituelako.

### LANGABEAK

	2019ko abuztua	2020ko abuztua	Aldakuntza
<b>GUZTIRA</b>	<b>116.078</b>	<b>146.450</b>	<b>30.372</b>
<b>LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA</b>			
Araba	19.540	24.987	5.447
Bizkaia	66.456	81.641	15.185
Gipuzkoa	30.082	39.822	9.740
<b>SEXU ETA ADINAREN ARABERA</b>			
Gizonak	49.357	66.399	17.042
Emakumeak	66.721	80.051	13.330
25 urtetik beherakoak	7.608	13.438	5.830
25 urte baino gehiago dutenak	108.470	133.012	24.542
<b>EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA</b>			
Lehen arloa	2.384	2.879	495
Industria	13.735	17.771	4.036
Eraikuntza	8.259	9.608	1.349
Zerbitzuak	78.164	98.299	20.135
Lehenago lan egin dutenak	102.542	128.557	26.015
Lehenago lan egin ez dutenak	13.536	17.893	4.357
<b>ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK</b>			
Langabe atzerritarrak	17.311	23.966	6.655

Iturria: SEPE.